



EBAZPENA

Jesica Ruiz Pérez, 1. Alkateordeak eta Herrigintza arloko zinegotzi delegatuak, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (2023/1707 dekretua, 2023ko ekainaren 29koa; BAOn argitaratua 2023ko uztailaren 19an 132. Zenbakian), honakoa erabaki du 333/2025/DL espedienteari buruz:

Aztertu ondoren hitzarmena sinatzeko informe teknikoa, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

E R A B A K I D U T

1. Hitzarmena sinatzea Durangoko Udalaren eta TRONPERRI DANTZA TALDEA elkartearen artean, honako testu honekin:

DURANGOKO UDALAREN ETA TRONPERRI DANTZA TALDEAREN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA

Batetik, JESICA RUIZ PEREZ andrea, NAN 72584228T, DURANGOKO UDALEKO 1. Alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak lagundurik, NAN 30616524M.

Eta, bestetik, ALBERTO IZAGIRRE IBARRA jauna, NAN 78863867, IFK G48519201 duen TRONPERRI DANTZA TALDEaren presidente moduan.

RESOLUCIÓN

La 1ª Teniente de Alcalde Jesica Ruiz Pérez, concejala delegada del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 2023/1707 de fecha 29 de junio de 2023, publicado en el «BOB» número 139 de 19 de julio de 2023, , ha dispuesto con relación al expediente 333/2025/DL lo siguiente:

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.


HE RESUELTO

1. Firmar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y la Asociación TRONPERRI DANTZA TALDEA con el siguiente texto:

CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN TRONPERRI DANTZA TALDEA

De una parte, Doña JESICA RUIZ PEREZ, con D.N.I. nº 72584228T, 1.Teniente de Alcaldesa del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistida de la Secretaria General Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, con D.N.I. nº 30616524M, que da fe del acto.

Y de otra, representada por ALBERTO IZAGIRRE IBARRA, con D.N.I. nº 78863867, en su condición de presidente de la asociación TRONPERRI DANTZA TALDEA con CIF G48519201.



DIHARDUTE

JESICA RUIZ PEREZ andrea, 1. Alkateordea eta Herrigintza arloko zinegotzi delegatua, alkateak 2023ko ekainaren 29ko 2023/1707 zenbakidun Dekretuaren bidez erabakitako ordezkartzen arabera; TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak, Udaleko Idazkari Nagusi moduan eta ALBERTO IZAGIRRE IBARRA jaunak, TRONPERRI DANTZA TALDEAko presidente moduan eta berau ordezkatzuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorritik.

Aitortu ondoren batzuk besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

ADIERAZTEN DUTE

I.- TRONPERRI DANTZA TALDEAren helburua, beren estatutuen arabera, honako hau da: "Ilekuko eta Euskadi mailako beste herrialde batzuetako musika eta dantzak irakastea."

II.- Durangoko Udalak lankidetzaz-esparru bat formalizatu nahi du TRONPERRI DANTZA TALDEAekin aipatutako ekintzak sustatzeko interes amankomuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik, ondorengo lankidetzaz-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituenak.

III.- 2025eko maiatzaren 19an TRONPERRI DANTZA TALDEA eskaera erregistratu du, non jasota geratzen diren jardueren memoria eta aurrekontua.

ACTÚAN

La 1. Teniente de Alcaldesa, Doña JESICA RUIZ PEREZ, concejala delegada del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 2023/1707 de fecha 29 de junio de 2023; Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, en su calidad de Secretaria General del Ayuntamiento y Don ALBERTO IZAGIRRE IBARRA, como presidente de TRONPERRI DANTZA TALDEA, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su Junta Directiva.

Reconociéndose las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

MANIFIESTAN

I.- Que TRONPERRI DANTZA TALDEA tiene como fin fundacional, según su norma estatutaria, "enseñanza de música y danza vasca del lugar y de otras localidades que se encuentren en el ámbito de Euskadi".

II.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco de colaboración con TRONPERRI DANTZA TALDEA, en aras a la consecución del interés concurrente de la promoción de la actividad referida. Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes

III.- En fecha 19 de mayo de 2025, TRONPERRI DANTZA TALDEA ha registrado solicitud para la firma de convenio adjuntando memoria de actividades y presupuesto



previsto.

ADOSTEN DUTE

Azaldutakoa ikusita, hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, klausula hauekin:

BETEBEHARRAK

LEHENA.- Izaera eta erregimen juridikoa

Hitzarmen hau Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arauak arautzen dute. Lege horren 22.2.a) artikulua zuzeneko diru-laguntza hau arautzen du, Durangoko Udalaren 2025eko Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusita dagoena 2025-2027 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2024ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onartua, eta informazio hau jasotzen duena:

Kodea: 3.3300.1.TDT

Onuraduna: Tronperri Dantza Taldea

Zenbatekoa: 9.900€

Partida: 61.3300.48101

BIGARRENA.- Durangoko udalak hartzen duen konpromisoa.

Durangoko Udalak 9.900 (BEDERATZI MILA ETA BEDERATZIEHUN) euroko diru-laguntza emango dio TRONPERRI DANTZA TALDEARI. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da. Diruz lagunduko diren jarduerak lankidetzat hitzarmenean jasotakoak eta 2025ean garatutakoak izango dira.

ACUERDAN

Que a la vista de todo lo expuesto acuerdan formalizar el presente convenio conforme a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Naturaleza y régimen jurídico

El presente Convenio se rige por las normas de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Se trata de un convenio que, de conformidad con el art. 22.2.a) de dicha Ley, regula la presente subvención directa, nominativamente prevista en los Presupuestos de 2025 del Ayuntamiento de Durango dentro del Plan Estratégico de Subvenciones 2025-2027 aprobado en Pleno el 19 de diciembre de 2024, entre las que se encuentra la siguiente información:

Código: 3.3300.1.TDT


Beneficiario: Tronperri Dantza Taldea

Importe: 9.900€

Partida: 61.3300.48101

SEGUNDA.- Compromiso asumido por el ayuntamiento de Durango.

El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 9.900 (NUEVE MIL NOVECIENTOS) euros a TRONPERRI DANTZA TALDEA, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente. Las actividades objeto de subvención serán las ejecutadas durante el año 2025 y contenidas en el presente



HIRUGARRENA.- Elkarteak hartutako konpromisoak

Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:

- Bizkaiko Emakume Dantzariak
- Euskadiko Jaialdia
- Umeen Euskal Jaia

Durangoko Udalari baimena ematea diru-laguntzaren funtsak behar bezala eta dagozkion helburuetarako erabili direla egiaztatzeko.

LAUGARRENA.- Entitate onuradunak diru-laguntzari buruz egin behar duen publizitatea

Entitate onuradunak Durangoko Udalaren finantziazioa jendaurrean azaldu beharko du eta Udalaren logotipoa agertu beharko du sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, foiletoak, informazio-orriak...), oroigarrietan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetako iragarkietan

Entitate onuradunak iragarkiak, oharrak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan joan behar dira. Gauza bera egin behar dute propagandarekin, bai idatzizkoa, bai ahozkoa. Bi hizkuntzak erabiltzen direnean, euskara lehenetsiko da. Betebehar hau, diruz lagundutako ekintzak justifikatzerakoan egiaztatu behar izango da.

Entitate onuradunak jarduera bat antolatu beharko du, dagokion arloarekin adostuta, San Fausto jaietako programaziotik kanpo.

convenio.

TERCERA.- Compromisos asumidos por la asociación beneficiaria.

Organizar y realizar las siguientes actuaciones:

- Bizkaiko Emakume Dantzariak
- Euskadiko Jaialdia
- Umeen Euskal Jaia


Autorizar al Ayuntamiento de Durango la comprobación material o formal de la correcta aplicación y destino de fondos de la subvención.

CUARTA.- Publicidad de la subvención por parte de la entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria, deberá hacer pública esta financiación municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento de Durango en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita.

La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen, debiendo proceder de igual manera con la propaganda sea oral o escrita. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de las actividades subvencionadas.

La entidad beneficiaria deberá organizar una actividad, consensuada con el área correspondiente, fuera de la programación de



Erakundeak emakumeen eta gizonen arte-ko berdintasun eraginkorrera bideratutako genero-ikuspegia sartu beharko du bere jardueretan. Ildo horretan, dokumentazio, irudi-publizitate edo material guztiek hizkera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu beharko dute, eta berdintasun- eta aniztasun-balioak dituen irudia sustatu beharko dute. Honako alderdi hauek baloratuko dira: erakundearen zuzendaritza-batzordean gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izatea; Kultur-arloan emakumeen parte-hartzea bultzatuko duten jardue-rak antolatzea, eta abar.

BOSGARRENA.- Diru-laguntzaren ordainketa

Durango Udalak diru-laguntza honela ordainduko du %80a hitzarmena indarrean sartu eta hilabeteko gehieneko epean. Gainerako %20a, diru-laguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Bigarren ordainketa honetarako gehieneko epea 2026ko maiatzaren 31 izango da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.

Erakundeak eta onuradunak egunean izan beharko dituzte Durango Udalarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin dituzten zerga-betebeharrak.


fiestas de San Fausto.

La entidad deberá incluir en sus actuaciones la perspectiva de género dirigida a la igualdad efectiva entre mujeres y hombres. En este sentido, toda la documentación, publicidad imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad y diversidad. Se valorarán aspectos como contar tener una presencia equilibrada de hombres y mujeres en la junta directiva de la entidad; organizar actividades que favorezcan la participación de mujeres en el ámbito cultural, etc.

QUINTA.- Pago de la subvención

El pago de la subvención se realizará de la forma siguiente: 80% en el plazo máximo de un mes a partir de la entrada en vigor del convenio. El 20% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este convenio. El plazo máximo para este segundo pago será el 31 de mayo de 2026. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

Tanto la entidad como la persona beneficiaria deberán estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Durango, la Seguridad Social y la Diputación Foral de Bizkaia.



SEIGARRENA.- Justifikazioa

Erakunde onuradunak diru-laguntzaren zertarakoa bete dela justifikatu beharko du. Justifikazioa egiteko, pertsona edo erakunde onuradunak proiektuaren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, gastuen ziurtagiriak erantsia. Honako hauek hain zuzen.

1. Hitzarmen honetako baldintzak bete direla frogatzen duen **memoria**, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memorian ondorengo adierazleak jasoko dira gutxienez:
 - Número de actos organizados
 - Número de espectadores/as
2. Programa gauzatzetik sortutako **gastuen eta izandako diru-sarreraren balantzea**, Udalak emandako ereduari jarraituta.
3. Programa gauzatzeko epearen barruan egindako **gastuen fakturak**. Diru-laguntza jaso duten helburu eta jarduera horiek (eskaeran adierazitakoak) gauzatzeko gastuen fakturak soilik eta horiek bakarrik aurkeztuko dira; hau da, ez direla onartuko beste edozein helburutarako egindako gastuen fakturak. Faktura eta egiaztagiriak diru laguntza deialdiaren urte berekoak izango dira.

Fakturetan haxe agertuko da:

- Erakundearen identifikazioa
- Hornitzailearen identifikazioa


SEXTA.- Justificación

La entidad beneficiaria deberá justificar el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención. La justificación se hará mediante la presentación de la cuenta justificativa con la aportación de justificantes de gasto que incluirá:

1. **Memoria** de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente Convenio, en la que se indicarán las actividades realizadas y los resultados obtenidos. En la memoria se deberán incluir, además, los siguientes indicadores:
 - Número de actos organizados
 - Número espectadores/as
2. **Balance de gastos e ingresos** correspondiente a la ejecución del programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.
3. Facturas **acrediten los gastos**. Las facturas deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención según solicitud previa, debiendo aportarse facturas giradas a la asociación correspondientes al mismo año de la convocatoria de subvención; no pudiendo admitirse como justificación los gastos realizados para el cumplimiento de fines distintos.

En las facturas se indicarán:

- Identificación de la asociación
- Identificación del proveedor



- Fakturaren data
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa

Ez dira onartuko:

- Elkarte barruko bazkariak, eta halakoak.

Faktura bakoitzarekin batera ordainagiria aurkeztu beharko da.

4. **Euskarri publizitarioak.** Azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen ale bana. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko. Euskarri guztietan Durangoko Udalaren babesa agertu behar da.

Justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko otsailaren 28a da.

ZAZPIGARRENA.-Iraupena

Hitzarmenak urte beteko (1) iraupena izango du. Hitzarmena bertan behera geratuko da 2025eko abenduaren 31n eta ez da aldez aurretiko salaketa ipini behar.

ZORTZIGARRENA.- Bertan behera uztea

Entitate onuradunak hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzahitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

- Fecha de la factura
- Actividad que origina el servicio
- Descripción del servicio

No se admitirán como justificantes:

- Costes de comidas de hermandad o similares.

Cada factura deberá ir acompañada de su justificante de pago.

4. **Soportes publicitarios.** Estudios, programas, publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita hayan sido elaborados en la actividad generada como consecuencia de la ayuda económica concedida. Se deberá incluir al Ayuntamiento de Durango como patrocinador en toda la publicidad realizada.


El último día para presentar la justificación es el 28 de febrero de 2026.

SÉPTIMA.-Duración

El presente convenio tendrá una duración de un (1) año, quedando el mismo extinguido el 31 de diciembre de 2025, sin necesidad de denuncia previa por cualquiera de las partes.

OCTAVA.- Extinción

El incumplimiento de los compromisos adquiridos por la entidad beneficiaria producirá, además de la extinción inmediata del convenio de colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.



BEDERATZIGARRENA.- Bateragarritasuna

Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagirak aurkeztu behar ditu.

HAMARGARRENA.- Dirua itzultzea

Justifikatzeko betebeharraren konpromisoak edo hitzarmen honetan jasotako beste batzuk betetzen ez badira, itzulketa-prozedura izapidetuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 41. eta 42. artikuluetan eta hura garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMAIKAGARRENA.- Araudi osagarria

Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

HAMABIGARRENA.- Datuen babesa

Durangoko Udalak kultura-jardueren eta zerbitzuen kudeaketaren, laguntzen, beken, diru-laguntzen, sarien, kultura-guneen lagapenen eta udal-artxiboko kontsulten esparruko datuak tratatzen ditu, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera. Datu pertsonalak Astarloa Kulturgintza toki-erakunde autonomoari eta arloan eskumena duten

NOVENA.- Compatibilidad

La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

DÉCIMA.- Reintegro


El incumplimiento de los compromisos de la obligación de justificar u otros contenidos en el presente convenio, supondrán la tramitación del procedimiento de reintegro según lo establecido en los artículos 41 y 42 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y artículo 91 del Real Decreto 887/2006 que lo desarrolla.

UNDÉCIMA.- Normativa complementaria

En lo no dispuesto en este convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

DUODÉCIMA.- Protección de datos

El Ayuntamiento de Durango trata datos en el ámbito de la gestión de actividades y servicios culturales, ayudas, becas, subvenciones, premios, cesiones de espacios culturales y consultas del archivo municipal de acuerdo con la Ley 7/1985 de bases del régimen local. Los datos personales podrán ser comunicados a Astarloa Kulturgintza OAL y a otras Administraciones Públicas con



beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari eta finantza-erakundeei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus

Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen hau izenpetu dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

2. Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: 9.000 Euro. Ordainketa 61.3300.48101 diru-partidaren kargura egingo da.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

4. Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko diru-kopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

competencia en la materia como Gobierno Vasco y entidades financieras. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación a la dirección del Ayuntamiento o al correo electrónico dpo@durango.eus, así como ampliar información en el portal de transparencia en www.durango.eus.

En prueba de lo acordado, las partes intervinientes suscriben el presente Convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a 9.000 Euros, con cargo a la partida 61.3300.48101.

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio Convenio.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará a lo indicado en el propio Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.

Lo manda y firma la Teniente Alcalde delegada, de todo lo cual yo, Secretaria/o General de la Corporación, doy fe.

Durango, 16 de junio de 2025

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente